

# ITSASBAZTERREKO BIDEXKA

Maila  
**3**

ERTAIN

DONIBANE LOHIZUNETIK HENDAIARA



EUSKAL ERLAITZA

Itsas bazterreko bidexkaren bigarren parteak bisita ederrak eskaintzen dizkizu Ziburuko portutik Hendaiaiko porturaino. Ibilbidea erlaitz hertsu baten bazterretik iragaiten da, bidearen eta labarren artean. Abbadiaiko eremua trabeskatu ondotik, Hendaiaiko hondartzara ederrean bukatzen da baita Txingudiko badian ere.


## Abiapuntura joan :

A63ko 3. irteeratik, RD810 hartu Donibane Lohizuneko norabideruntz. (1.9 km). Ezkerrera itzuli komisaldegiko suan. Ondoko suan, xuxen segitu, eta burdinbidearen gainean den zubia trabeskatu. Itzuli segidan eskuinera, Habas karrikan. Joan Passicot aparkalekura (urrik). Luis XIV plazara joan oinez.

## Handik sartzeko

Hendaiatik Donibane Lohizunera, ATCRB autobuseko ohiko ibilbidea, ordutegia eta tarifak : 05 59 08 00 33

- D** Urdazurin den RD810-eko zubira joan, ( RN10 ohia) eta Ziburu aldera pasatu (arrantzari buruzko seinaleak). Zubiaren bukaeran, jautsi eskuin aldera, eta xuxen segitu portua iraganez. Ama Birjinaren estatua bat pasatu. 300 egin eta eskailerretatik jautsi.
- 0'25** Kaira joan badiaren historiari buruzko seinaleetaraino. **1** (607021 4804811). Igo berriz urrunago eskailerretatik. Bide bazterretik ibili, eta Zokoako zubia trabeskatu. Eskuineko bidea hartu eta portuaren ingurutik pasatu. Beste zentzuan izanik, itzuli bi aldiz eskuinera, Itsasargiaren karrika segitzeko. Horren ingurutik pasatu, eskuinaldetik, bidexka batetik, eta erlaitzaren bazterrean den lurmutur batera joan, burdinezko zutabe batez **2** (606288 4805506) finkatua dena. Arraberritua izan den bidexka hartu. Bide eta erlaitza artetik pasatzen da. Blockhaus bat pasatu (Rd912 eta RD913en gurutzegunean) eta horrela bide bazterretik urrundu. Bidea maldan behera doan momentuan, Euskal Haztegien badia ttikira joan. (kostaldeko ekosistemari buruzko seinaleak) **0'25** **3** (604300 4804593). Erlaitzaren bazterretik igo : bidexka noizbehinka bidetik urruntzen da. Jautsiera bat eta gero, eskuinera hartu Haizabia **4** (602641 4803742). etxearen sartzean. Kostaldean den mendi-etxe batera joan, eskuinetik. Zubi bat trabeskatu, berriz igo eskailerretatik, zuzen eta segitu bidexka batetik. Abbadia guneko sartzera pasatu eta Asporotzeko arrantzaleen ekipamenduetara joan **5** (602120 4803701). Bidexkatik segitu, zuhaitziak eta zakardietan gaindi. Eskuinera hartu gurutzegune bakoitzean, salbu bidearen erdian. Hor Loia badiara jausten den bidea hartu. Iritsi « Ste Anne » (Santa Ana) puntara, eta haize arrosa **6** (601100 4804254). batek gailentzen duen blockhausera. Labarraren goiko aldearen ingurutik pasatu, babesteko hesiak trabeskatu gabe, bi harkaitzetaruntz. Landa Etxera joan (Abbadia eremuko animazio zentroa) eta itzuli eskuinera guneko (600795 4803386). sartzean den hesiraino jautsiz. Itsas bazterreko bidexka aitzina doa aparkaleku azpitik hondartzara joanez, ezkerrera, 350 metro tara. Ondotik, bideak Hendaiaiko diketik segitzen du, Bidasoako estuarioraino.



**D Donibane Lohizune-Luis XIV plaza**  
(608261 4804644)



3'



11,8km



292m

**Kartografia : euskal herriko mendebalde / rando edizioak**

GPS (WGS84-UTM-30T)

Deskargatu GPS azterna [www.rando64.fr](http://www.rando64.fr)

**Ikusi beharrekoa:**

- Donibane Lohizuneko badia
- Euskal erlaitza
- Abbadiako eremu babestua
- Hendaiako hondartza handia

- Xakurrak debekatuak Abbadiako eremuan
- Bizikleta debekatuak

**Balizamendu** seinaletika « itsasbaterreko bidexka »

**ABBADIA GAZTELUA**

Abbadia gaztelua Hendaiako bi bixiak harkaitzaren parean diren labarretan kokatua da. Viollet-Le-Duc-ek eraiki zuen 1864 eta 1879 urteen artean. Arkitektura neo-gotikoa duen eta biziki apaindua den eraikin horretan ikusten da bere jabearen pasio orientalista. Antoine d'Abbadiek (1810-1897), esploratzaile, geografo, eta astronomoa zenak, abenturaz beteriko bizia ezagutu zuen. 1895ean, bere eremua utzi zion Zientzetako Akademiari, eta bertako lehendakari bilakatu zen 1892an. Akademiaren elkarteak bere lana segitzen du gaztelua kultura zientifikoaren hedapen zentro gisa erabiliz. Xehetasunak : [www.academie-sciences.fr/Abbadia.htm](http://www.academie-sciences.fr/Abbadia.htm)



Renseignements complémentaires auprès de :  
Office de tourisme Terre et côte basques Pays de St-Jean-de-Luz – Hendaye  
Tel : 05 59 26 79 62  
[www.terreetcotebasques.com](http://www.terreetcotebasques.com)

**[www.rando64.fr](http://www.rando64.fr)**

à pied, en vtt ou à cheval, découvrez le Béarn et le Pays basque !

## Mailak

Fitxetan ageri den **desnibela**, igoera gutzien emaitza da. Ibilaldien iraupena pausa momentuak konduan hartu gabe kalkulatu da.

**Oinezko ibilaldiak mailaren arabera sailkatuak dira** eta ibilbide bakoitxaren fitxa praktikokoan kolore batez azalduak. Izan ere, FF Randonnée-ren arauak segitzen ditugu.

**Biziki errexa** 2 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Familiarekin egiteko biziki egokia, bidexka zabaletan zehar.

**Errexa** 3 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Familiarekin egin daitekeena. Bidexketan,

tarte zailago batzuekin.

**Ertaina** 4 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Mendizale adituei zuzendua. Leku aski zaila batzu eta desnibela handia izaten ahal dira.

**Zaila** 4 oreneko ibilaldia baino luzeagoa.

Mendizale aditu eta kirolaria denari zuzendua. Ibilaldia luzea edo zaila izaten da. (desnibela, parte zailak), edo biak betan.

**Ibilaldiaren iraupena**: zure informazioarako emana da. Ibilaldiaren luzetasuna konduan hartzen du, baita desnibelak eta izan daitezkeen zailtasunak ere.



Bide seinaletika

## Balizamendua

Balizamendua segitu bide onean egoteko

Bidexken balizamendua	Herri ibilbideak eta PR®	GR®
Norabide ona		
Ezkerrera itzuli		
Eskuinera itzuli		
Norabide txarra		

GR®, GRP® eta PR® Oinezko Ibilaldietarako Frantses Federazioak pausatu dituen sormakak dira

## Zure iritzia gure bidexkei buruz - Ecoville®

Kasu handia egiten dugu proposatzen dizkizugun ibilaldiak hautatzerakoan eta prestatzerakoan. Gure bideen egoerari buruz dituzun iritziek eta oharrek interesatzen gaituzte. Horiei esker, bideak egoera onean atxikitzen ahal ditugu. Zure oharren jakinarazteko CRDP 64 deitzera gomitzen zaitugu : 05.59.14.18.80.

Edo « Ecoville » ohar fitxa bat galdegin ondoko webgunean : [www.rando64.fr](http://www.rando64.fr)

## Aholku baliagarriak

Aroa 08 92 68 02 64

Europako larrialdi zenbakia 112

Biarno eta Euskal herriko bideetan gaindi ibiltzean lurralde hori biziarazten duten izadi, gizon eta emazteekiko portaera errespetagarria izan dadin ezinbestekoa da.

Arau batzu errespetatzea inportantea da.

### Izadia begiratu

- Zure hondakinen biltzeko zaku bat hartu.
- Abereak eta landareak errespetatu
- Balizatuak diren bideetan egon

### Zure burua zaindu

- Mendira ez abiatu behar den materialik gabe
- Bakarrik ez joaten saiatu.
- Erreketako urik ez edan.
- Aroari kasu egin.

### Aktibitateak eta gizakiak errespetatu

- Hesiak berriz hestea pentsatu.
- Suak debekatuak dira.
- Ibilbideak inguratzen dituzten etxe pribatuak errespetatu.

## Ibilaldien labelak

### PR® labelizaturiko ibilbideak :

Label horrekin, FF Randonnée-ek oinezko ibilaldiak kalitatezko ezaugarrien arabera onesten ditu aitortpena. Hautua ezaugarri tekniko eta turistikoaren arabera, baita ingurumenari loturiko ezaugarrien arabera ere egiten da. (xehetasun gehiago ukaiteko, [www.ffrandonnee.fr](http://www.ffrandonnee.fr))

## Ibilbideen GPS datuak.

Ibilbide bakoitzarentzat, etapa punduen GPS datuak emanak dira.

Erreferentzia formatua hau da :

**WGS 84 - UTM 30T**

### Kasu !

Euskal eta biarnes mendiak artzain-eremuak dira. Xakurrik gabe joaten saiatu. Edozein kasutan, loturik atxik. Milesker !